


VILLA MARÍA DEL CARMEN
D MAILA**ATEGORRIETAKO GALTZARA ZAHARRA 21****Ramon Kortazar, 1912****Deskripzioa**

Irudi pintoreskoko *villa*, zenbait elementu berezi dituena, hala nola: bay window-a, malda handiko estalki zatikatuak, harlanduzko zokaloa, bilbaduraren imitazioko errematea teilatu-hegalaren azpian, galeriak eta balkoiak. Partzelarako sarrera hegoaldean dago, eta eraikina bera Rodil kalea baino beheragoko kota batean geratzen da. Partzelak inguru bereko beste askoren proportzio berberak dauzka, forma errektangularra du-eta zona zabalena behereneko kotan lagata. Beheko solairuaren kokapena lurrarekiko goratua da, eta horren eraginez sarrera nagusiak eskalinata txiki bat dauka, zokaloa gainditu ahal izateko. Erdisotoa, beheko eta lehen solairua, eta teilatupea neurri batean okupatzen duen bigarren solairua dauzka. Bay window-az gain, sarrerako logia dauka, bao biko zabalerakoa guztira, hasiera batean zurezko zutikoz altxatua; horretara iristeko, T formako eskailera bat zegoen, tarteko eskailera buru eta guztikoa. Estalki horizontalak balkoia egiten zuen berriro ere, lehen solairuko geletarako.

D mailaren berariazko babes araubidea

- 1- Babesetik kanpo lagatako fatxadako elementu edo alderdiak: ez dago horrelakorik.
- 2- Fatxadako elementu edo alderdi iraunkorrak: harria eta bilbadurak, estalkia.
- 3- Esku hartzeko murriztapen partikularrak: jasodurarik gabe. Ordenantza orokorren 21.8 artikuluan baimendutako jarduketak villako iparraldeko fatxadarekin kontaktuan egonez gero baimenduko dira.
- 4- Nahitaezko lehengoratzeak: ez dago horrelakorik.